

TOKI GARAPENERAKO BATZORDEA

6.- HERNANIKO MADALENA KALEKO 1 ETA 7 ATARIEN ARTEKO URBANIZAZIOA BERRITZEKO OBREN EXEKUZIO EPEAREN LUZAPENA (Txos. AA.21-43)

2021eko abuztuaren 3ko Alkate Dekretuz Hernaniko madalena kaleko 1 eta 7 atarien arteko urbanizazioa berritzeko obra kontratua URBYCOLAN S.Lri esleitu zitzaion, 90.971,95€ + 19.104,11€ (%21eko BEZa) guztira 110.076,06€ zenbatekoan. Exekuzio epea bi hilabetekoa zuinketa akta sinatzen denetik aurrera.

Kontratua 2021ko abuztuaren 24an sinatu zen.

Zuinketa akta 2021ko irailaren 23an sinatu zen. Horiek horrela, exekuzio epea azaroaren 23an bukatuko da.

2021eko azaroaren 11an Tokiko Gobernu Batzarrak kontratuaren aldaketa onartzen du. Zehazki, ur hornidurako hodi berria eraikitze egin beharreko lanak baimentzea.

URBYCOLAN enpresak 2021ko azaroaren 19ko datarekin exekuzio epea abenduaren 17a arte luzatzea eskatu du, kontratuan ur hornidura berria eraikitze modifikazio bat egon dela argudiatuta.

2021ko azaroaren 22ko datarekin Obra zuzendaritzak exekuzio epearen luzapenaren aldeko txostena egin du, Ur hornidurako hodi berria eraikitzeak sortu duen atzerapena dela eta, URBYCOLAN enpresak aurkeztutako luzapen eskaera arrazoizkoa dela ondorioztatzen du.

Aztertu da Kontratistak egindako exekuzio epearen luzapen eskaera.

Aztertu da obra zuzendaritzak egindako aldeko txostena.

Aztertu da udal zerbitzu juridikoei 2021ko azaroaren 22ko datarekin egindako aldeko txostena.

Proposamena:

Tokiko Gobernu Batzarrak hau erantzutea:

Hernaniko madalena kaleko 1 eta 7 atarien arteko urbanizazioa berritzeko obra kontratuaren exekuzio epea abenduaren 17 arte luzatzea dagokion oinarri pleguan zehaztutako baldintza berdinetan.